

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko apirilaren 29an egindako bilkuran, 221/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Okupatu beharrekoa den eremua handitzea proiektu honetan: “A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik xehakaturik: A-625 errepidea 359,650 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua.”

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 842/2010 Erabakiaren bidez onetsi egin zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura proiektu aldatuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu zen, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita, eta, halaber, bere horretan utzi zen proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren behin betiko onespina (I. eranskina).

Desjabetuko diren lurren okupazioa Nahitaezko Desjabetzapenaren Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

Administrazio honetako Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2020ko martxoaren 25ean eragindako ondasun eta eskubideak gehitzeari buruz, eta honako hau adierazi zuen:

“Ukitutako hornidura zerbitzurako, proiektuak, logikoki, errepidearen lur berdinketak kaltetu duen hoditeria birjartzea baino ez du aurreikusten. Hala ere, Saratxoko Administrazio Batzarrak eskatuta, 200 metro gehiago luzatu da birjarpena, enborearen 1+900 kp-tik 2+100 kp-ra inguruan, zuntz zementuzko hodiaren ordean polietilenoazko hodi berri bat jartzeko, birjartzeko erabilitako ezaugarri bereberekin. Lurzati hauek izango dute horren eragina:

- Amurrioko 7 poligonoko 537 lurzatia (28/100 finka)
- Amurrioko 7 poligonoko 538 lurzatia (30/100 finka)

Saratxoko saneamenduari dagokionez, Airesko auzoaren eremuan, proiektuan aurreikusitako birjarpena proiektatutako errepidearen enborretik urrunago dagoen eremu batean egin da, Saratxoko Administrazio Batzarrak eskatuta, eragindako jabeen kalteak murrizteko. Hala ere, saneamendu zerbitzuaren trazadura berri horrek honako partzela hauetan afektazio berriak eragingo ditu

- Amurrioko 9 poligonoko 73 lurzatia (11/100 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 75 lurzatia (10/050 finka)

- Amurrioko 9 poligonoko 74 lurzatia (10/180 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 76 lurzatia (10/170 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 79 lurzatia (10/190 finka)

Bestalde, aipatutako proiekturako kontuan hartutakoarekin alderatuta lursailaren egungo egoera egiaztatu ondoren, alde txiki bat hauteman da zenbait eremutan, eta horrek eragotzi egiten du proiektuan aurreikusitako zaintza areka egitea desjabetutako eremuan, eta arauzko jabari publikoko eremua ezartzea zabalgunearen kanpoko ertzetik neurtuta, Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik. Hori zehazki bi eremutan gertatzen da, lehenengoa enborrharen 0+420t kp-tik 0+540ra kp-ra eta 203 ardatzaren 0+100etik 0+160ra inguruan, eta, bigarrena, enborrharen 0+780 kp. tik 1+080 kp-ra inguruan. Honako partzela hauetan desjabetzeak handitzea aurreikusten da:

- Amurrioko 7 poligonoko 459 lurzatia (3/100 finka)
- Amurrioko 7 poligonoko 458 lurzatia (4/100 finka)
- Amurrioko 7 poligonoko 457 lurzatia (7/200 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 286 lurzatia (9/100 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 77 lurzatia (10/100 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 73 lurzatia (11/100 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 329 lurzatia (11/101 finka)

Era berean, trenbidearen ondoan eta paraleloan doan 34. ardatzeko 0+120 k.p. tik 0+200 k.p. ra inguruan dagoen nekazaritza bideari dagokionez, Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (ADIF) eskatuta, trenbidearen trazadura bereizteko eta zuntz optikoaren kanalizazioari eta komunikazioei ez eragiteko, bidearen trazadura doitu egin da, eta horrek desjabetzea handitzea dakar honako lurzati hauetan::

- Amurrioko 9 poligonoko 335 lurzatia (22/100 finka)
- Amurrioko 9 poligonoko 28 lurzatia (22/190 finka)“

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hori garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzearako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Gainera, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik premiaz okupatu behar hori egikaritu beharreko proiektuen handitzei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideei ekitea presako prozeduraren bidez.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Handitzea okupatu beharrekoa den eremua proiektu honetan: “A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik xehakatu: A-625 errepidea 359,650 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua” Honi erantsitako eranskinean daude xehetasunak.

Bigarrena. Izapidetzea ondasun eta eskubide horien desjabetzea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan jasotako presazko prozeduraren bidez.

Hirugarrena. 32.086,24 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-1455/000.20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetzapen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori lehen aipatutako xedapenaren lerro eta erreferenziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Bosgarrena. Erabaki honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar dezakezu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, honako hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaiokezu egintza hau agindu duen erakundeari berari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo presuntziazko ezespina gertatu arte (urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen prozedura erkidearena, 123 eta 124. artikulua).

Aurrekoa gorabehera, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, aipatutako epeak etenda geratuko dira alarma egoera amaitu arte."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

A-625 ERREPEDEA 357,30 KILOMETROTIK (BIZKAIKO MUGA) EGOKITZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA, ZEINA A-625 ERREPEDEA 359,65 KILOMETROTIK (AMURRIOKO EKIALDEKO SAHESIDEAREN HASIERA) 354,22 KILOMETROA EGOKITZEKO TRAZADURA ALDATUAREN ERAKUNTZA PROIEKTUAREN PROIEKTU XAHATUA BAITA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625 ENTRE EL P.K. 357,30 Y EL P.K. 354,22 (LÍMITE DE PROVINCIA CON BIZKAIA) DESGL OSADO DEL DE CONSTRUCCIÓN MODIFICADO DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 359,65 (INICIO DE LA VARIANTE ESTE DE AMURRIO) Y EL P.K. 354,22.

ESP/EX.PTE. 06Z17-C

FINKAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARAREN IZENA NOMBRE DEL PROPIETARIO	KATASTROKO DATUAK POLIGONOA LURSAILA DATOS CATASTRALES POLIGONO PARCELA	UDALA AYUNTAMIENTO	APROBETXAMENDUA APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	ERAGINDAKO AZALERA M2		EGUNA DIA	ORDUA HORA
							BEHIN-BETIKOA DEFINITIVA	BEHINEKORAKI TEMPORAL		
28/100	AZKUE DAÑOBEITIA, Begoña María	7	537	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		2	1.130 Homidura ubidea/3m Acueducto abast./3m 595	10/7/20	10:00
10/050	ODIAGA CUADRA, María GUINEA ODIAGA, M. Mercedes	9	75	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		233	126 Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m 71	10/7/20	11:15
10/170	ODIAGA CUADRA, María GUINEA ODIAGA, M. Mercedes	9	76	AMURRIO	LORATEGIA JARDIN		84	42 Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m	10/7/20	11:15
10/180	ODIAGA CUADRA, María GUINEA ODIAGA, M. Mercedes	9	74	AMURRIO	BARATZEA HUERTIA		22	4 Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m	10/7/20	11:15
9/100	ODIAGA CUADRA, María GUINEA ODIAGA, M. Mercedes	9	286	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		173		10/7/20	11:15
11/101	LEAL DE IBARRA ROBBEDO, J. Luis MAQUEJIRA DOMINGUEZ, Soledad	9	329	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		422		13/7/20	10:00
4/100	MENDIVIL LARRANAGA, Mª Soledad	7	458	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		359		13/7/20	10:45
22/190	BARRENENGOA LARRAZABAL, J. Luis	9	28	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		40		13/7/20	12:00
11/100	GUTIERREZ VILLATE, Miguel Angel	9	73	AMURRIO	LORATEGIA JARDIN		184	169 Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m 85	13/7/20	12:45
7/200	GUTIERREZ VILLATE, J. Antonio	7	457	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		189		13/7/20	13:30
10/190	IRIONDO ZULUETA, Elisa María	9	79	AMURRIO	FUTU ARBOLAK FRUTALES		2	61 Saneamendu ubidea/3m Acueducto saneam./3m 31	14/7/20	10:00
3/100	TORREANTON, M. Dolores MENDIETA TOREA, Mirren Josune MENDIETA TOREA, Mirren Nekane	7	459	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		663		14/7/20	10:45
22/100	QUINTANA MENDIVIL, Victoriano	9	335	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		179		14/7/20	12:00
30/100	QUINTANA SALAZAR, Daniel Pantaleón, Olegario, J. Ignacio y Encarnación	7	538	AMURRIO	ZELAIA PRADERA		358	80 Homidura ubidea/3m Acueducto abast./3m 40	14/7/20	12:45